

Ohiko II Erako Hasierako Agiria (21/2013 Legearen 34.2 artikulua)

Sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako agiriarekin batera, eta honako informazio hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a. Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak. Proiektuaren kokapena, bideragarritasun teknikoa eta ingurumen gainean sor dezakeen eragina eta baita ere katastrofe edo istripu larrien arriskuaren aurrean proiektuaren ahultasunak eratorritako ingurumeneko arloetan aurretik ikus daitekeen eragina.
- b. Aintzat hartutako aukera nagusiak, eta haietako bakoitzak izan ditzakeen inpaktuen azterketa.
- c. Proiektuak eragindako lurraldearen eta ingurumenaren diagnostikoa.